



ERDAINKUNTZA edo ZIRKUNZISIOA Zaintza eta Gomendioak

Zertan datza ebakuntza hau?

Ebakuntza hau zakil-mokoa edo glandea agerian uztea eragozten duen prepuzioaren azala kentzean datza, sexu-harreman normalak ahalbidetzeko eta eragozpenak zein infekzioak izateko arriskua gutxiagotzeko.

Ebakuntza hau ANESTESIA LOKALA ETA SEDAZIOa erabiliz egiten da.

Nola prestatu behar dut neure burua?

Baraurik egon behar zara, 6 orduz.

Alergiarik edo koagulazioaren asaldurik edo alteraziorik izanez gero, ezinbestekoa da guri jakinaraztea.

Zer egin behar dut ebakuntza egin ondoren?

- ❖ EZIN duzu gidatu ebakuntza egin ondoren.
- ❖ Afari arina egin (jogurta, natillak, salda, flana, purea....).
- ❖ Hartu alta ematean agindu dizuten medikazioa. Sendagairen bat hartzen baduzu, gau horretatik aurrera berriro har dezakezu.
- ❖ Tenperatura hartu gauean eta goizean, ebakuntza egin eta ondorengo 4 egunetan.
- ❖ Bendajea kendu ostean, dutxa zaitezke. Ondo lehortu ebakuntza-eremua igurtzi gabe, ukituak eginez edo lehorgailua erabiliz eta eman pobidona iododuna (Betadine®).
- ❖ Jostura-puntuak berez eroriko dira.
- ❖ Jostura grapak erabiliz egin bada, 10 egun igarota eskuez leunki masajea eman behar duzu, pixkanaka aska daitezen.
- ❖ Etxean atseden hartu behar duzu ebakuntzaren ondorengo 2 egunetan, baina ez erabatekoa. Ez duzu zertan ohean egon.
- ❖ Ez egin ahalegin edo ariketa bortitzik, ez eta kirolik ere, 2 egunez.
- ❖ Zakil-mokoa edo glandea zertxobait handitu daiteke modu iragankorrean. Zakila bertikalean jarrita zuzentzen da, eta sabelaren aurka jartzen da galtzontziloa janztean. Galtzontzilo estua erabili.
- ❖ 24 ordu igarota, zure osasun-zentrora joango zara, sendaketa egitera.

HAUETAKOREN BAT BADUZU:

- 38°ko sukarra edo handiagoa baduzu.
- Zauria oso handituta baduzu.
- Lasaigarriak erabilita mina kentzen ez bada.
- Apositua odolez zikindu edo odoletan baduzu.

Familia-medikuarengana edo larrialdietara jo.